

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Lapurrak gora eta behera

Martin Barriuso • BILBO

Gasolindegiei buruz idatzi nuen artikuluari («Nor da lapurra?», 2001-11-28) Julen Boraok (2001-12-09) erantzun tautologikoa ematen dio: «Lapurra lapurra da». Gauza interesgarriak planteatzen ditu, baina testua txarto ulertu duelakoan nago eta gauza batzuk argi utzi nahi nituzke.

1. Gasolindegia batetik ordaintzeke joan nintzen, baina ez ostu edo protestatzeko asmoz, edonork izan dezakeen oker baten ondorioz baizik. Okerra Cepsa konpainiak ezarritako kobrantza sistema ezegokiaren ondorio zuzena da.

2. Cepsa-Elf multinazionalaren erantzuna —ohikoa, jakin dudanez— ni zuzenean auziperatzea izan da, segurtasun gastuak

guztiok ordaintzen dugun justizia sistemari pasatuz. Hau da nire keaxaren arrazoi nagusia.

3. Ehunka (agian milaka) langile kalean utzi duen gasolindegien birmoldaketaren helburua enpresen etekin ikaragarriak handitzea izan da, ez gizartearen hobekuntza. Langileak ez ziren lanpostu duinagoetara joan, kale gorrira baizik. Haien ordezkutxa atzean gelditu diren langileen lan baldintzak ere (egun osoa mugitu gabe, aldi baterako kontratuak, soldata baxuak,...) ez dira, hain zuzen, duintasunaren eredu.

4. Egia da lanpostu asko alferrikakoak direla eta gure gizarte burgesak sortutako fikziozko beharren ondorio direla, baina egungo botere egiturarekin hiritarrok ez dugu gai horretan gure iritzia emateko —are gutxiago, erabakitzeke— inolako gaitasunik. Lan

banaketa okerra dago eta ez dirudi zuzentzeko bidean goazenik.

5. Langabetuek jasotako prestazioak azken urteotan ikaragarri murriztu direnez, gero eta zailagoa da lanpostu txar batetik alde egitea eta guztiok (Boraok izan ezik, antza) langabezia baino nahiago izaten dugu lanpostu txarra. Bestela, zergatik agoantatzen dugu gehienok gure lanetan? Noren poltsikora doa galdutako lanpostuekin aurrezten den dirua? Alegia, lanpostuen kalitatearen gakoa aberastasunaren banaketan datza.

6. Arazoa ez da neoliberalismoa, haren ekintzak baizik. Haren kontra jartzea egunero bizimoduan dituen eraginaren kontra jartzea da, lehen lehenik. Gasolindegien birmoldaketa inposatzen ari zaigun ekonomia-aren araugabetzearen ondorioetako bat da. Nik ez dakit nola irten egoera honetatik, bai-


na ez dirudi Boraok ere bide argirik duenik. Ea guztion artean aurkitzen dugun.

Bertsolari finala

Fermin Etxegoien • BILBO

Zenbait berba egin izan da Andonik azken kartzelako gaian botatako *poxia* hitzari buruz, haren esanahiaz, nahi dut esan. Hiru ahapaldi lehenago, baina, *zeak* hitza jaso du atzoko EGUNKARIAK *serac* behar zuen tokian. *Serac* hitz frantziarra dugu, alpinismoan erabiltzen diren asko eta asko bezalaxe (piolet, couloir, goulotte), eta glaziarren mugimenduek sortzen dituzten izotz metak adierazi nahi du. *Serac*-ak usu erori egiten baitira eta ondorioz istripuak eragin.

montxo



galdeiozu... ?



Laborantza ganbera izan ala ez, Euskal Herriko laborantza ez ote da nazioarteko merkatuaren eta Europako laborantza politikaren menpeko?

Jon Ruiz (Donostia)

Europako nekazaritza politikak eta nazioarteko negoziaketek eragin handia dute gure nekazaritzan. Hala ere, itsaso zabal horretan, ez gara uraren gaineko hosto hilen pareko... Laborantza ganbera batek badu legeak ematen dion kompetentzia, eta diru publikoak ematen dion ahala. Bestalde, Estado frantsesean, nekazaritza politika leku egituraren esku da. Nahikeria politikoa baldin bada, posible da erresistentzia mota bat egitea mundu liberalari eta laborantza industrializatuari. Nekazaritza iraunkor bat norabidetzat hartuz, kalitatekoa, ingurumena, enplegua, lurraldea, mikroekonomia sustatuz, apustua egiten dugu posible dela beste nekazaritza modelo bat biziaraztea.

Abenduaren 26tik aurrera **Joane Somarriba** • txirrindularia izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.

hirusta

Xabier Gantzarain



Bihotz onekoak

Ez da txantxetan hartzeko kontua. Eta nik ez dut txantxetan hartzen. Sutu egiten naute halako kontuek. Boterean daudenek, zapaldu eta babesgabeentzako aterpe diren eskubideen garrantziaz ohartu nahi gaituzte. Eusko Jaurlaritzak Giza Eskubideen aldeko kanpaina bat hasi du. Ongi legoke propaganda politikoa ez balitz. Ongi legoke Giza Eskubideei buruzko eztabaida serio bat pizteko balioko balu. Baina jeltzaleen propaganda egiteko Giza Eskubideen kontua erabiltzeak berauenganako errespetu falta erakusten du, ez besterik. Indigenentzat ez omen da existitzen eskubidea kontzeptu bezala. Etxea baduzu edo ez duzu. Etxea izateko eskubidea zer den ez omen dute ulertzen. Eta arrazoiz. Kalean hutzak akatzen bizi denari alferrikakoa zaio etxea izateko eskubidea. Eskubidea izateak ez baitu esan nahi zor zaizuna bermatuko zaizunik.

Izan ere, oso polita da mundu mailako Giza

Eskubideen zerrenda bat izatea. Garena baino hobeak garelako sinesteko balio digu. Baina bada gaur egun denok berdinak jaiotzen garela eta gure azalaren koloregatik, gure sexuagatik, gure erlijioagatik edo gure ideologiagatik ez garelako baztertuak izango sinesten duen memelarik? Bada gaur egun herrien eskubide kolektiboak (eta ez naiz Euskal Herriaz bakarrik ari) behin eta berriro urratzen direla ikusten ez duen mioperik? Euroak ikasi al ditu Giza Eskubideak?

Ez dakit buruz Giza Eskubideen zerrenda eta ezta beharrik ere. Badakit Giza Miserien zerrenda. Iritsiko dira Gabonak eta mundu guztia hobe izanen da. Mundu guztia oroituko da etxetik urrun, hain urrun dauden presoez eta Euskal Telebistan *Hator*, *hator* abestuko dute herri honetako hainbat jenderentzat kantu horrek duen balio sinbolikoaz jakitun. Azken finean, bihotz onekoak garelako, alegia.